Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

401

Uztailak 1, 2021

2 Irun Atzo, Irun Gaur
3 Berri laburrak
4-5 Sanmartzialetako argazkiak
6 Real Union
7 Landetxako memoria historikoa
8 Kirolak: Olaketa Judo Kluba
9 Kirolak: Aitzpea Gonzalez
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Beti gazte: Udako proposamenak
14 iGazte
15 Agenda

caser residencial

INFORMA ZAITEZ!

Adineko pertsonentzako egoitzak

EGONALDI IRAUNKORRAK
ALDI BATERAKO EGONALDIAK
- FAMILIAREN ATSEDENERAKO
- ERREABILITAZIO, OPERAZIO ONDOKOAK
- GAIXONDOKOAK

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Pirineo Atlantikoko Departamenduarekin hitzartuak

Caser Anaka - Anaka kalea 8- IRUN - 943 66 77 80. Caser Betharram - Zubieta kalea 161 - HONDARRIBIA 943 64 71 69

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?



1921eko uztailaren 10ean argitaratutako "El Bidasoa" aldizkariak duela 100 urte Irunen albiste ziren gertaerak errepasatzen ditu. "Ecos de las pasadas fiestas" artikuluan hirian amaitu berri diren jaien laburpena irakur daiteke. Yole olerkariak idatzitako maitasun nahigabeei buruzko olerkiak argitaratu dira bertso erromantikoei eskainitako atalean. Aldizkariko hurrengo idatzian irinaren prezioaz eztabaidatzen da, produktuaren prezioa asko aldatzen baita Gipuzkoako herri batetik bestera. Jarraian, tuberkulosiaren aurkako kontsultategiaren diru-sarrerak handitzen saiatzeko, Rafael Larraz Kontsultategiko zuzendariak hiritarrei objektuak dohaintzan ematea eskatzen die tonbola bat antolatzeko. "Buzón de El Bidasoa" atalean, berriz, irakurleek aldizkarira bidalitako mezu laburrak argitaratzen dira.

Kirol kronikan Real Union taldearen denboraldi amaierako emaitzak biltzen dira, Santanderreko Racing taldearen aurka jokatutako azken partiduaren xehetasunak laburpenarekin. Bigarren orrialdearen erdialdean, X hizkiaz sinatzen duen kolaboratzaileak eskerrak ematen dizkie agintariei bere azken artikuluan salatutako egoera konpontzeko ahalegindu baitira. Izan ere, Irun eta Hondarribia lotzen dituen tranbian hobetu beharreko gauzez ohartarazi zuen azken idatzian. "Un remontista" ezizenarekin sinatutako artikuluan herrietako pilotalekua zaintzeko beharra adierazten da, kirol tradizionalen iraupena bermatu ahal izateko. Orrialdearen amaieran, "Notas municipales" atalean, azken udal bilkuran hartutako erabakiak biltzen dira.

Azken orrialdearen hasieran eskola-sariak banatzeko ekitaldiak eta marrazki erakusketa aipatzen dira. "Ecos de sociedad" atalean, berriz, Irundar ezagunek azkenaldian egindako bidaiak aipatzen dira. 18 urteko José Antonio Picavearen heriotzaren berri eman ostean, Irunen eraikiko den kirol-zelaiak izan beharreko instalakuntzak zerrendatzen dira. Berri laburren atalaren ostean, "El Bidasoa" aldizkariaren 306. zenbakia iragarkiz betetako orrialdearekin amaitzen da.

Argazkiak:

61936: Haurrak eta langileak Gurutze Gorriaren Kontsultategian.

50309: Uranzu pilotalekuaren inaugurazio partida 1934ko uztailaren 1ean.

53165: Colon pasealekua, errepidea urbanizatzeko eta zabaltzeko lanetan (1908).

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Administrazioa:
Joseba Arozena

Zuzenketa:
Carlos Sánchez

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Ayuntamiento Udala irun www.irun.org

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Gipuzkoako Foru Aldundia

AEAk argia izan dezan

Ehun lagundik goiti batu dira AEA duten gaixoei babesa adierazteko

Ekainaren 21a, Alboko Esklerosi Amiotrofikoa, (AEA) gaixotasunaren Nazioarteko Eguna da. Eritasun neurodegeneratibo bat da. Nerbio sistemako zelulek lan egiteari uzten diote, eta gaixoaren giharrak paralizatu egiten dira pixkanaka. ADELA Espainiako AEA gaixotasunaren elkarteak emandako datuen arabera, Hego Euskal Herrian 244 kasu daude.

Munduko ELA egunarekin bat egiteko, ehun lagundik goiti batu dira Irungo San Juan Harria Plazan. Bertan egon baita Xabier gaixoa. Hasiera batean, lagun gutxi batzuen konpainia espero zuen herriko etxeko argiztapenak berde kolorea hartzen ikusteko. Hala ere, hainbat sorpresako eguna izan da iruindarrarentzat. Senideek jende andana mugiarazi zuten Xabierri babesa adierazteko. Hunkituta egon da batu diren ezagun guztiekin topatuta.

Elkarretaratzea txistu doinuekin hasi da. Ondoren, Tere emazteak hitza hartu du: "Guztiengatik doa. Ikerketa eta zientziak garaturiko lanean dago, guztiok etorkizuna izan dezagun". Hitzartzean gogoan izan ditu AEA gaitza gertutik bizi izan duten senideak, "Lorentzoren familia, Martxeloren ama, Aliziaren ama, Kontxiren senideak, Yoli gaztea, besteak beste". Alboko esklerosi amiotrofikoa ezezaguna baita gizartearen gehiengoarentzat, inguruko norbaitek gaitza izan arte.

Txalo zaparradarekin bukatu da bertaratzea eta Irungo Udalak berde kolorea hartu du, ekainaren 21eko gauean, AEAk argia izan dezan.

Egilea: Xabierren eta AEA gaixo guztien adiskidea.

Irungo Udalak Harrotasunaren Nazioarteko Eguna ospatzeko jarduerak indartu ditu

Irungo Udalak Harrotasunaren Nazioarteko Eguna ospatzeko jarduerak indartu ditu. Udalak ekainaren 28ko datatik haratago joan nahi izan du eta aurreko eta ondorengo egunetarako jarduera-programa zabala aurkeztu du.

Ekainaren 28an LGTBIQ+ Harrotasunaren Nazioarteko Egunaren eguna ospatzen da mundu osoan. Izan ere, 1969ko Stonewallen, New Yorken, gertatutako liskarren ostean, kolektiboaren askapen mugimendua abiarazteko gertakari erabakigarri horiek gogoratzen dira. Irungo kasuan, 2021eko Harrotasunaren Egunaren harira egitasmoak ekainaren 21etik uztailaren erdialdera luzatuko dira.

Miren Echeveste Berdintasuneko ordezkariak Irungo Udalak LGTBIQ+ Harrotasunaren Nazioarteko eguna ospatzeko antolatutako ekimenak aurkeztu zituen. Berdintasun ordezkariaren hitzetan, "iaz, ekainaren 28ari lotutako sentsibilizazio jarduerei bultzada handiagoa ematen hasi zen Irungo Udala, eta, aurten, beste pauso bat emango dugu, jarduera berriak antolatuta eta ospakizunak auzoetara eramanda, identitate sexual guztiak errespetatu beharraren inguruan sentsibilizatzen jarraitu behar dugulakoan". Era berean, azkenaldian normalizazioaren kontra indarrean jarraitzen duten jarrerak albiste izan dira, Miren Echevestek nabarmendu duenez, aldarrikapenak premiazkoa izaten jarraitzen du.

Harrotasunaren Egunaren harira antolatutako ekitaldiak IrunBusen garajeetan aurkeztu ziren, ekimenetako bat L2 Irun-Katea lineako autobus batean binilo bat jartzean datzalako. 12 metroko autobus horren karrozeria ekainaren 21etik uztailaren 11ra bitartean ostadar banderarekin serigrafiatutako binilo batekin apainduta egongo da.

Bestetik, ekainaren 28an 17:30etik 19:30era, Gehitu elkartearekin elkarlanean, ostadar banderak, txapak eta sentsibilizazio materiala banatu ziren hiriko hainbat lekutan: Nagore Laffage parkean, Zabaltza plazan, Alberto Anguera plazan, Lapurdi kaleko haurrentzako parkean, San Juan plazan, Urdanibia plazan eta Santiagotik eskuineko aldeko bidegorrira daraman sarreran, Pierre Lhande ibilbidean. Material hori guztia sare sozialetan erakusteko gonbidapena egin zitzaien herritarrei, uztailaren 2an LGTBIQ+ literaturako argitalpenen hiru sorta zozketatuko baitira. Zozketan ekainaren 28tik uztailaren 1era Twitterren eta Instagramen #HarrotasunaIrunOrgullo traola erabiliz eta @Irun_informa udal kontua aipatuz ostadar banderen argazkiak igotzen dituzten parte-hartzaile guztien artean.

Horretaz gain, aurreikusten diren jarduera guztiak sustatzeko, iragarki instituzional bat kaleratu da, non Irungo alkate José Antonio Santanok eta Berdintasuneko ordezkari Miren Echevestek parte hartuko zuten. Azkenik, ekainaren 28an, ostadar bandera udaletxeko balkoian jarri zen.

ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

Olaizola INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

San Martzial Egun ezberdina bigarren urtez jarraian

Azkenean 2021eko San Martzial Egunak aurreko urtekoaren pausuak jarraitu ditu. Ekaineko azken egunean musika Irunen nagusitu ez bada ere, irundar asko eta asko zuriz, gorriz eta beltzez jantzi dira hiriko kaleak festetako koloreekin alaitzeko. Pandemiak goitik behera baldintzatutako bigarren urtean Alarde Publikoa eta Tradizionala bertan behera gelditu dira, ekainaren 30a eta urteko egun berezi horretan irundarren ohiturak markatzen dituzten ekitaldi nagusiak desagertu diren bitartean. Ondorioz, berriro ere San Martzial Egunean ateratako argazkiak guztiz desberdinak izan dira gainontzeko urte arruntekin alderatuta.

Aro berri baten hasiera Real Union klubarentzat

Emery familiak Irungo kasinoan "Real Union Club" proiektua aurkeztu du, "Real Union historikoa sendotu eta indartzeko" asmoz. Igor Emery familiaren bozeramaileak proiektuaren ildo nagusiak azaldu ditu, Josu Reta Emerytarren konfiantzazko abokatua eta Jose Antonio Santano Urungo alkatea lagun zituela.

Aurkezpenean Igor Emeryk senide asko izan zituen lagun, tartean Unai anaia eta entrenatzailea. Aurkezpenaren hasieran Igor Emery familiaren bozeramaileak adierazi duenez, "gu, Emery familia, belaunaldi zoragarri hartako familien ordezkariak baino ez gara. Ohore handia da guretzat proiektu honen buru izatea". Proiektu berri honetan familiak zergatik parte hartu duen azaltzean, bozeramaileak honako hau adierazi du: "Sentimenduz, bihotzez eta ilusioz egiten dugu, baina, batez ere, erantzukizun handiz".

Emery familiaren gidaritzapean klubak biziko duen eraldaketa irudikatzeko 1924ko eta 1927ko Errege Kopak ekarri ditu gogora. Igor Emeryren hitzetan, "oraina eta etorkizuna bideratzeko, ezinbestekoa ikusten dugu iragana gogoratzea. Izan zirelako gara, garelako izango gara". Horrela, Emeryk kluba jada eraldaketa prozesu batean murgilduta dagoela azaldu zuen. Familiaren bozeramaileak adierazi duenez, "Real Union Club" proiektuak lau ardatz nagusi izango ditu, eta xehetasun gehiago emango dituzte uztailaren 21ean Stadium Galen egingo den Ezohiko Batzar Nagusian.

Lau ardatz

Proiektuaren lehen ardatza "bi abiadurako lana" dela esan du Igor Emeryk. Kirol arloan, epe laburrean helburua lehen taldea gutxienez Lehen RFEFko kategorian mantentzea da. "Baina ez du lehentasun txikiagoa epe ertain-luzean prestakuntzan, oinarrizko futbolean eta arlo sozialean eta instituzionalean egin nahi dugun lanak", adierazi du familiaren bozeramaileak. Ildo horretan, Emery familiaren "Real Union Club" proiektuak beheko kategorietan pentsatu behar du, filialetik hasita eta eskolaraino. Proiektuak seme-alaben hazkuntzan lagundu behar die gurasoei eta, behetik abiatuta, identitate bat eta oinarri bat eraiki behar ditu klubak etorkizunari euts diezaion.

Bigarren ardatza ilusioarekin loturik dago. "Kidetasun sentimendua sortu behar dugu, eta unionista lokartuak esnatu. Ikastetxeetan hasi eta igandero Galera etortzen diren zaleengan amaituko den lan bat egin nahi dugu", adierazi du Igor Emeryk. Uztailaren 31n, agintariek horretarako aukerarik ematen badute, Stadium Galeko ateak zaleei ireki nahi dizkietela gaineratu du. Historian atzera eginez, Real Unioneko atezain izan zen aitonak, Antonio Emeryk, 1924ko Errege Kopa irabazi ostean, "El Bidasoa" aldizkarian argitaratutako hitzak berreskuratu ditu: "Ez naiz hunkitzen partida garrantzitsuak direnean, urduriago jartzen naiz publikoaren aurrean jokatzen dudanean. Hainbesteraino inplikatzen naiz borrokan eta hain pozik utzi nahi ditut irundarrak nire trebetasunez, ezen askotan gauzak ez zaizkit nahiko nukeen bezain ongi ateratzen".

Emery familiaren bozeramaileak, era berean, erakundea irekitzeko beharraz hitz egin du planaren hirugarren ardatzean. Irungo eta eskualdeko beste klubekin harremanak sustatuz, ez bakarrik futbol elkarteekin, baita Bera, Lesaka eta Iparraldeko taldeekin ere. "Historian mugako klubtzat hartu izan da, kontzeptua eguneratu nahi dugu eta mugaz gaindiko klub bezala ezagutzea, Real Unionek Irundik harago begiratzen duelako. Klub hobea nahi dugu eskualde hobe baterako".

Laugarren eta azken ardatza familia kontzeptuaren gainekoa da. Bozeramailearen hitzetan, "ez naiz hasieran aurkeztu ditudan nire familiako senideez ari, gaur hemen kluba ordezkatzen ari diren hauetaz baizik: langileak. Denok gara familia honetako kide, eta klubaren arrakastak guztionak izango dira". Taldeak zelaian lortutako arrakastak kluba osatzen duten enplegatu guztiek haien lorpen propioak balira bezala sentitzea nahi dutela azaldu du Igor Emeryk.

Ezohiko Batzar Orokorra

Ekainaren 9an Real Unioneko Administrazio Kontseiluko Ricardo Garcia presidenteak eta gainontzeko kideek iragarri zuten uztailaren 21erako Ezohiko Batzar Orokorra deitu dela. Gai-zerrendako puntuen artean 1.200.000 euroko kapital-handitzea proposatuko da. Jose Manuel Amantegui lehendakariordeak adierazi duenez, "Injekzio ekonomikoa kluba indartzeko da. Amanteguik azaldu duenez, 1.200.000 euro horiek harpidetu egingo dira. "Nahiago nuke eskualdea berriro unionismoz bustiko balitz eta kapital-handitze horretan parte hartuko balu, baina guztizko zenbatekora iristen ez bada, Emery familiak gainerakoa jarriko du, eta horrek, guretzat, Administrazio Kontseilu gisa, balio izugarria du, erakundea agertoki guztietarako finkatzen duelako", gaineratu du lehendakariordeak. Behin kapitala handitzeko prozesua azalduta, Ricardo Garciak kirol arloan eta erakunde mailan klubak azken 20 urteetan izandako bilakaera errepasatu du. Era berean, Administrazio Kontseiluko presidenteak gogorarazi nahi izan du hogei urte baino gehiagotan klubak ez duela inoiz Hirugarren Mailan jokatu, eta 2008/09 denboraldian Bigarren A Mailara igotzearen mugarriaz gain, kirol arloko arrakasta handiak lortu dituela.

Eskerrak emateko garain, Garciak, lehenik eta behin, "Irungo Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Kutxa Fundazioaren eta Realaren laguntza" azpimarratu du, "une txarretan egoteagatik". Izan ere, haien laguntzarik gabe, Real Union ez litzateke orain dagoen tokian egongo. Gainera, duela urte batzuetatik hona klubaren babesle nagusia izan den Uvesco taldea eta hogei urte baino gehiagotan klubaren ondoan egon diren Decoexsa, Zuhaitzi, Servos, El Diario Vasco eta gainontzeko enpresak gogoratu ditu.

Administrazio Kontseiluko presidenteak, halaber, Real Unionetik igaro diren entrenatzaile eta jokalari guztiak oroitu ditu. "Beraiek, zalantzarik gabe, euren esfortzu eta sakrifizioarekin klubaren historia handitzen lagundu dute", azaldu du Ricardo Garciak. Era berean, klubeko langileak gogoratu ditu, bere garaian hemendik pasa zirenak eta orain daudenak, "haien eguneroko lanari esker klubak funtzionatzen duelako".

Landetxak auzoaren memoria historikoa arakatzeko proiektua abiatu du

1930. hamarkadan eromeria Txapartegin

1938an langileak Porcelanas aurrean

Landetxa Auzo Elkarteak auzoko historia biltzeko bideo bat sortzeko proiektua hasi du. Horretarako, 1930etik 1955era bitarteko argazki, dokumentu eta objektuen bilduma egiten ari dira. Proiektura ekarpenen bat egin nahi duten pertsonek ostiraletan arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara auzo elkartera hurbiltzeko, avvlandetxa@hotmail.com helbide elektronikora idazteko edo 688669426 telefono-zenbakira deitzeko aukera izango dute. Proiektuan inplikatua dagoen Oihana Galardik azaldu duenez, dokumentuak eskaneatu ostean jabeei itzuliko zaizkie.

Zergatik erabaki zenuten proiektu hau martxan jartzea?

Proiektu honen ideia luzarotik dator. Badira urte pare bat zerbait landu nahian ginela. Ideia batetik hasi ginen, lagunen artean aurretik memoria historikoaren baitan gauzak egin ditugunak. Horrela, auzoko testuinguruari buruz hitz egiten hasi ginen. Bagenekien bazeudela auzoko hainbat pertsonen testigantzak ahotsak.eus webgunean, garai jakin honi buruz hitz egiten zutenak eta garai jakin honetan bizi zutenari buruz. Egia esan, pandemiaren aurretik lanean hasiak ginen eta bilera garrantzitsu bat egitekoak ginen, baina dena bertan behera gelditu zen. Egia esan, proiektuak hainbat aukera izan ditu zer egin pentsatzen hasi ginenetik. Bizpahiru urte aise pasa dira eta azken hilabeteetan erronkari eutsi diogu eta lanean jarri gara.

Hastapenetan auzoaren historiari buruzko informazio asko topatu zenuten?

Egia esan, aitzakia beste proiektu batean lanean ari ginenean aurkitutako testigantzak izan dira. Ez genituen inoiz ahaztu auzoko pertsonak zirelako, ezagutzen genituelako... Auzokoak garen heinean gure familiei buruz hitz egiten eta informazioa partekatzen hasi ginen, ideia hori buruan genuelarik. Helburua beti testigantza gehiago lortzea izan da, bereziki, garai hartako zuzeneko testigantzak geroz eta gutxiago direlako eta premia hori genuen. Jendea joan egingo zitzaigula bagenekien, beraz, ezin genuen proiektua gehiago atzeratu.

Zer-nolako edukiak jaso nahi dituzue?

Testigantzak hor daude eta auzoari zerbait eskaini nahi diogu, ez bakarrik testigantza batzuen batura. Elkarren artean giza eskubideei buruzko ikuspegi bat partekatzen genuen. Zerbait egin nahi genuen eta bideo bat izatea erabaki genuen. Testigantzen batuketa soil bat izan ordez, giza eskubideen ikuspegitik abiatuta, mezu bat helarazten saiatu nahi genuen, mezu positibo eta eraikitzaile bat, memoria historikoa lantzeko. Zer egin nahi genuen ikusten hasi ginen. Garai hartako argazkiak egon badira noski, baina orduan jendeak ez zuen gaur egungo argazki kamerarik. Auzoko jendearen interesa pizteaz gainera, proiektua guztiona izatea nahi dugu.

> **"Bakoitzak etxean izan ditzakeen altxorrak partekatzeko aukera ematen du proiektuak"**

Orain arteko bilketa emankorra izan da?

Beti bezala ideia askorekin elkartu gara eta pertsona aditu bat dugu produktuari forma ematen laguntzeko. Berak lurrera ekartzen gaitu, dena ezin daitekeela kontatu eta zer adierazi erabaki behar dela esanez. Gure helburua zein den zehazten saiatu behar dugu, testigantzen batura egiteko modu polit bat eraikitzeko.

Bitxikeria asko topatu dituzue orain arte bildutako istorioetan?

Ez, badaude oraindik ere mingarriak izan daitezkeen gauzak. Askotan aipatzen da isiltasuna, zenbat isiltasun zegoen garai hartan: sufrimenduagatik, beldurragatik, lotsagatik, ahazteko beharragatik... Isilune hori belaunaldi artekoa izan da. Anekdoten artean jaso dugu naziak auzoan bertan egon zirela, beraien kamioiak eta gauzak gordetzeko toki bat izan zutelako. Jendeak ospa egin behar izan zuen eta fronteak auzoan bertan egon ziren. Bakoitzak ikuspegi ezberdin bat dauka, bakoitzak memoria historikora puntu ezberdin batetik hurbiltzen delako. Eseri eta hitz egiten hasita hamaika bitxikeri agertzen dira. Horrela, bando bakoitzean egotea nolakoa zen jakin dugu, izan ere, askotan bandoa aukeratzeko orduan aukerarik ez zegoelako.

Zergatik mugatu zarete 1930-1955 urteen arteko garai historikora?

Garai horren baitan hasi ginen sentsibilitate bat genuelako. Hainbat pertsona hortaz hitz egiten hasi ginen. Proiektu ezberdinetan lanean ari ginela atzera begiratzea eta harremanak sortzea garrantzitsua dela ikusi dugu. Bizikidetzan oinarritutako harremanak sortu nahi ditugu, atzera begiratzea eta gertatutakoa ulertzea garrantzitsua dela iruditzen zaigu. Momentu historiko hori inflexio puntu bat dela uste dugu, gaur egun garen honetan zuzeneko eragina daukala. Noski, garena gara puntu horretan gertatutakoaren ondorioz. Garai hura ezagutu zuten pertsonak bizirik ezagutu ditugun belaunaldikoak gara. Nahiz eta isilune asko egon, zuzenako kontakizunak egin dizkiguten pertsonak ezagutu ditugu eta, ondorioz, badakigu garai hura beraientzat zer izan zen.

Proiektuaren momentu honetan zerbait zehatzaren bila ari zarete?

Zerbait zehatza baino, momentu jakin honetan argazkiak eskatzen ari gara. Dauzkagun testigantzak argazkiekin jantzi nahi ditugu, sortu nahi dugun bideotan hitz egiten duten pertsonez haratago. Garai bateko argazkiek garai bateko auzoa irudikatzen laguntzen dute, egungo auzoak eta 30. hamarkadakoak ez dute zerikusirik. Argazkiek kontatutakoak testuinguruan jartzen laguntzen dute eta auzoaren lehenaldiko irudi kolektiboa osatzen dute. Garai hartako argazkiak altxorrak dira. Bakoitzak etxean izan ditzakeen altxorrak partekatzeko aukera ematen du proiektuak.

Noiz arte jasoko dituzue auzokideek utzitako materialak?

Ziur asko udaran zehar. Datozen hilabeteetan jendeak proiektuaren berri izatea, haien argazkiak bidali edo etxean dauzkan argazkien berri eman dezan. Argazki asko jasoko bagenitu, izugarria izango litzateke. Dokumentu grafiko horiek izanda, batzuk auzoarentzat prestatuko dugun produktuan erabiliko lirateke. Gainontzeko edukiekin beste zerbait egiteko aukera izango genuke, adibidez, auzoko artxiko bat sortu, etorkizunean auzokideek eskura izan dezaten.

Auzoa asko aldatu da denbora honetan guztian zehar?

Bai, asko. Pentsatu behar dugu orduan Katea edo Ventas izenaz ezaguna zena, nekazal auzo bat zela. Orduan kale nagusi bat zuen eta egun ezagutzen ditugun espazio gehienak ez ziren existitzen. Lur gehienak zelaiak ziren eta fruta-arbolez eta baratzez beterik zeuden. Auzoaren egitura erabat eraldatu da. Horregatik, auzoa zein modutan eta zergatik eraldatu den jakin nahi dugu. Orain arteko iragana ulertzeko balioko digula uste dugu.

Noiz espero duzue bideoa bukatuta egotea?

Urte amaierarako bukatuta izatea gustatuko litzaiguke. Udara beti garai arraroa da edozein proiektu aurreratzeko. Beraz, bideoa urte amaierarako bukatu ahal izatea espero dugu.

Olaketa Judo Klubak lau domina lortu ditu Euskadiko Txapelketan

Olaketa Judo Klubak lau domina lortu ditu Euskadiko Txapelketan. Naia Bordak, Dasnel Katharrek eta Ibai Vegak urrezko domina lortu zuten. Unai Zuazuak, aldiz, brontzezko domina lortu zuen. Gorka Borda entrenatzaileak azaldu duenez, klubean hurrengo txapelketak prestatzeko lan handia egiten ari dira.

Pozik zaudete klubeko kirolariek Euskadiko Txapelketan lortutako emaitzekin?
Bai, egia esan, oso pozik gaude. Txapelketara lau parte-hartzaile eraman genituen eta laurek domina lortu zuten. Zehazki, gure kirolariek hiru urrezko domina eta brontzezko domina bat lortu dituzte Euskadiko Txapelketan. Denboraldia nolakoa izan den ikusita, oso pozik gaude gure judokek lortutako emaitzekin.

Naia Bordak, Dasnel Katharrek eta Ibai Vegak urrezko domina lortu zuten. Nolakoak izan ziren haien borrokak?
Dasnel Kather 50kg azpiko kategorian lehiatu zen, klubeko parte hartzaileen artean arinena baita. Borrokaldietan oso mutil hotza da eta asko pentsatzen du bere estrategia. Orain arte oso ibilbide ona izan du eta oso ondo borrokatu zen Euskadiko txapelketan. Naiaren kasuan, berriz, borroketan asko aurreratzen den neska da. Borroketan irabazten zion Zarauzko lehiakide baten aurka borrokatu beharko zuela genekien, hortaz, borroka aurretiaz estrategia zehatz batekin prestatu genuen. Gure estrategian aurkaria zigortzea lortu nahi genuen, horrela, guk erasotzeko aukera izateko. Gauzak bikain joan ziren eta oso txapelketa ona egin zuen Naiak. Ibai Vega, aldiz, 90 kilotik gorako kategorian lehiatu zen eta oso borrokaldi onak egin zituen txapelketan.

Unai Zuazuak brontzezko domina lortu arren, lorpen pozgarria izan zen?
Bai, batez ere, bere lehen urtea delako kadete mailan, haur kategoriatik igo berri baita. Txapelketan berriro parte hartzeko bigarren aukera ondo aprobetxatu zuen, izan ere, brontzezko domina irabazi zuen.

Euskadiko Txapelketan horrelako emaitzak lortzea espero zenuten?
Egia esateko, uste genuen txapelketan gure kirolariek bi urrezko domina, zilarrezko eta brontzezko domina bana lortuko zutela. Ez genuen batere argi zer gerta zitekeen Naiaren finalean, baina gauzak uste moduan gertatu zirenez, urrezko dominarekin itzuli zen etxera.

Urrezko dominak lortzeaz gainera, judokak Espainiako Txapelketarako sailkatu dira?
Bai, Euskadiko Txapelketako irabazleek Espainiako Txapelketan parte hartzeko aukera izan ohi dute. Aurtengoa, ordea, urte ezohikoa denez, pandemiaren eraginez estatuko txapelketa gehienak atzeratu dira. Ondorioz, Espainiako Txapelketa azaro eta abendu artean egingo dela uste dugu, nahiz eta oraindik txapelketaren data zehatza jakinarazi ez diguten. Hala ere, zer gertatuko den ikusteko dago, izan ere, ez dakigu neska-mutilek txapelketaren datarako pisu berean mantenduko diren edo ez. Beraz, baliteke txapelketaren aurretik ranking bat egitea. Dena den, uste dugu judokek, ranking berrian lehen postua lortutakoan, horri eusteko aukerak dituztela.

Egoera aldakor honekin erraza al da txapelketarako entrenamenduak antolatzea?
Zaila da, hain zuzen ere, %60an entrenatzen ari garela esan dezakegu, beraz, prestaketa ez da erabatekoa. Domina horiei esker begiak ireki eta entrenatzen jarraitzeko gogoa piztu zaigu. Kanpoaldean maskara erabiltzea derrigorrezkoa ez bada, entrenamenduak eramangarriagoak izango direla uste dugu, entrenamendu fisikoak berreskuratzeko aukera izango dugulako. Bestetik, haur txikiek orain arte ez dute txapelketa bakar bat ere izan, hortaz, irailerako lehiaketaren bat antolatu ahal izatea espero dugu.

Zein izango da Olaketako judoken helburua Espainiako txapelketan?
Helburua beti podiumera igotzea da, zenbat eta gorago hobeto. Dena den, oso judoka gazteak dira eta estatuko txapelketetan maila asko igotzen da.

Olaketa klubaren kasuan, maila altuko txapelketen prestakuntza aurretiazko esperientzia duzue?
Bai, aurretik Espainiako txapelketaren batean parte hartu dugu. Klubean Espainiako txapeldunak izan ditugu, adibidez, Yoana Nicolás. Pandemia hasi aurretik, Espainiako Kopan parte hartu genuen eta, esaterako, Aimar Bordak Espainiako 5. postua lortu zuen.

Pandemiak txapelketen egutegian aldaketa asko eragin ditu?
Bai, adibidez, lehen hilero antolatzen ziren Espainiako Kopa bat edo bi eta orain bi urte daramatzagu Espainiako Koparik antolatu gabe. Kopetan parte hartzea oso entrenamendu ona zen guretzat, estatuko kirolariak, beren maila eta teknikak ezagutzeko aukera ematen baitzigun.

Konfinamenduaren ostean judoken kirol errendimendua jaitsi dela nabaritu duzue?
Bai, asko murriztu da. Nire kasuan zorte ona izan dudala esango nuke, gure judokek, orokorrean, entrenatzen jarraitu dutelako eta gogo handiz lan egin dutelako. Kirolari gazte eta osasuntsuak direnez indarberritzea errazagoa izan da.

Etenaldiak Olaketa klubeko judoka kopuruan eragina izan du?
Txapelketetako parte-hartzaileak mantentzea lortu dugu. Dena den, oraindik baditugu gaixotasunarekiko beldurragatik aurkariekin kontaktua saihestu nahi duten kirolariak. Hortaz gain, irakaskuntza ere guztiz baldintzatu du. Musukoarekin entrenatzen dugu, kostatu zaigu, baina ohitu egin gara. Gainera, maskararekin entrenatuz erresistentzia gehiago lortu dugula ikusi dugu, beraz, gauza berriak ikasteko ere balio izan digu.

Judoa Irunen kirol arrakastatsua dela esango zenuke?
Bidasoa eskualdean judoa praktikatzen duen jende asko dago, izan ere, eskualdean hainbat judo klub daude, beraz, nahiko kirol ezaguna dela esango nuke.

Nola aurreikusten duzue uda?
Momentuz entrenatzen jarraitzen dugu. Espainiako Txapelketa urrutiegi ikusten dugunez, entrenamenduen maila apur bat lasaituko dugu, irailetik aurrera maila altuko entrenamenduak berreskuratzeko. Hortaz, udan, batez ere, entrenamendu fisikoetan zentratuko gara, beti borrokarako grina bizirik mantenduz.

Aitzpea Gonzalez, arraunlaria:

"Garaipenetatik zein porrotetatik beti ikasten da zerbait"

Aitzpea Gonzalez bere kideengatik goratuta

Aitzpea Gonzalez Espainiako Selekzioko kideekin kontzentratuta dago Sevillan, hurrengo Mundialeko probak prestatzeko. Arraunlari irundarrak azaldu duenez, aurrekoa ez da bere denboraldirik onena izan, Olinpiadetako bigarren sailkapenean eta Europako Txapelketa absolutuan izandako eragozpenen ondorioz. Dena den, Santiagotarrak klubeko arraunlaria hurrengo txapelketetarako prestatzen ari da, pandemiaren eragina murriztu eta laster lehiaketen errimo normala berreskuratuko ahalko delakoan.

Pozik zaude Espainiako Txapelketako emaitzekin?
Bai, laukoan beste hiru neskekin zilarrezko domina lortu nuen. Zortziko ontziarekin, berriz, 4. postua eskuratu genuen, beraz, nahiko pozik nago lortutako emaitzekin. Eguraldi txarra egin zuen, haizea zebilelako eta arraunean haizea asko nabaritzen da. Hala ere, arraunketetan lortutako emaitzekin pozik gelditu nintzen.

Azken asteetan hainbat txapelketa pilatu zaizkizue?
Bai, astebururo txapelketa bat izan dugu. Normalean tarte gehiago izan ohi dugu txapelketa batetik bestera eta azken hiru txapelketak Urrunagako urtegian egin dira.

Hiru txapelketetan toki berean egitea lagungarria izan da zuentzat?
Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketetan parte-hartzea nahiko antzekoa izan zen, beraz, batetik bestera ez genuen alde handirik nabaritu. Espainiakoan, aldiz, maila altuagoko jendearen aurka lehiatzea egokitu zitzaigun. Gainera, Urrunagako urtegia Irundik gertuago dago eta desplazamenduak laburragoak direla nabaritzen dugu, esaterako, Bañolas edo Sevillako txapelketekin alderatuta, hara bidaiatzea nekagarria baita.

Kirolarientzat onuragarria edo kaltegarria da txapelketa asko elkarren segidan izatea?
Batetik, ondo dago asteburu batetik bestera gauzak hobetzeko aukera duzulako. Bestetik, astebururo guztia desmuntatu behar izatea eta haraino joatea nekagarria da. Hortaz, astebururen bat libre izatea ondo legoke.

Pandemiak baldintzatutako denboraldia izan dela nabaritu duzu?
Bai, kirol arloan asko eragin didala uste dut. Orain dela hilabete bat 2021eko Olinpiadetan parte hartzeko bigarren aukera izan nuen eta nire ontziko arraunlari batek positibo batekin zuzeneko kontaktua izan zuenez, ezin izan ginen txapelketara joan. Kolpe oso gogorra izan zen niretzat. Izan ere, bi urtez txapelketa horretarako entrenatzen ibili gara eta, nahiz eta joateko aukerarik ez izateak izugarri izorratu gaitu.

Olinpiadetako aukera galdu arren, nazioarteko beste lehiaketaren batean parte hartzeko aukera izango duzue?
Orain Sevillan kontzentratuta nago eta selekzioko jendearekin urrian jokatuko den Mundialerako entrenatzen ari naiz. Espainiako txapelketak sailkapen horretarako eraginik izan ez arren, ondo dago maila ona erakusteko.

Apirilean Europako Txapelketa Absolutuan parte hartu zenuen, ezta?
Bai, Varesen, Italian, jokatu zen. Hainbat arazo tarteko, Europakoa ere ez zen gure txapelketarik onena izan, baina garaipen zein porrotetatik beti ikasten da zerbait. Azken finean, hori da egin dezakegun gauza bakarra, ikasten jarraitzea gauzak hobeto kudeatzen jakiteko.

Europako txapelketan 11. postua lortu arren, esperientzia moduan ona izan zen?
Bai, hori da. Txapelketaren hasieran nahiko atzeratuta gelditu ginen. Igandean gutxienez Alemaniaren aurka jokatzeko aukera izan genuen, gainontzekoak jada oso urruti geneuzkalako, eta hori izan zen gure motibazioa.

Pandemiak, txapelketez gain, entrenamenduak ere baldintzatu dizkizue?
Batez ere beldur handiagoa nabaritu dugu, hau da, elkarrekin denbora asko pasatzen dugunez, bat kutsatuz gero gainontzekoak kutsatzeko arriskua dagoelako. Urduritasun hori txapelketan aurretik indartu dela ikusi dugu. Dena den, burbuila moduan funtzionatu dugu, denboraldiko garai konkretu batzuetan onartezina baitzen gutako edonor kutsatzea.

Nola aurreikusten da zuretzat aurtengo uda?
Oraintxe bertan urrira arte ez dugu beste txapelketarik. Momentuz entrenatzen jarraitzen dugu, ez dakigulako abuztuan edo irailean Mundialeko boteetan sartzeko probak egingo ote ditugun. Uztaila bukaeratik ia abuztu hasierara Sierra Nevadan entrenatzen egongo gara, ondoren, Sevillara itzuli eta Mundialerako sailkapena lortzen saiatzeko.

Atseden hartzeko aukerarik izango duzu?
Egia esan, kirol munduan murgiltzen zarenean deskonektatzeko aukera izatea zaila iruditzen zait. Oporretan forma fisikoa galtzeko arriskua dago, beraz, zaila da. Proben ostean, hau da, bai Mundialera joaten ez banaiz eta, bestela, Mundialaren ostean atseden hartuko dut. Olinpiadetako bigarren aukerarekin gertatutakoaren ostean ere atsedenaldia hartu nuen beharrezkoa sentitu nuelako. Urte osoan txapelketa prestatzen eman ostean aukera galdu izana oso gogorra egin zitzaidan.

Hurrengo denboraldia lasaiagoa izango dela uste duzu?
Bai, gehienok jada txertoa jarrita izango dugunez, espero dut birusaren intzidentzia jeistea eta ohiko bizitzaren erritmoa berreskuratzen hastea. Uste dut era horretan guztiok, modu batean edo bestean, gure betebeharretatik deskonektatzeko aukera gehiago izango ditugula.

GIPUZKOAK BADU

ETORKIZUNA

Zu bezalako 720.000
gipuzkoarrei esker,
Europan desberdintasun maila txikienetarikoa
duen lurraldea izan nahi du Gipuzkoak.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

ETORKIZUNA ERAIKIZ
#GipuzkoarKonpromisoa

SAN VICENTE DE PAUL HH

Denbora-pasak

7 hitz: Uda

L	D	P	F	B	A	P	M	Q	C	Q	C	B	Z
U	F	T	L	U	J	B	R	Y	V	J	W	X	E
L	E	U	D	X	T	X	Q	Q	B	T	H	D	B
U	S	F	V	D	H	D	P	V	H	Y	H	A	E
M	T	C	T	E	B	K	Z	C	I	R	O	Y	R
D	A	A	O	B	G	I	P	H	H	F	G	Z	O
X	N	Y	U	X	G	U	W	M	E	N	D	I	R
Y	U	Y	H	G	D	Q	Z	H	U	Q	G	Q	S
Y	D	F	F	G	V	K	T	K	X	L	B	W	S
L	E	T	D	Z	C	S	W	Y	I	E	M	T	A
Q	F	A	U	I	G	E	R	I	L	E	K	U	H
C	I	L	N	D	Z	O	P	O	R	P	B	A	S
E	M	Z	I	L	J	Q	A	A	I	L	S	C	G
D	O	T	Q	N	H	O	N	D	A	R	T	Z	A

Eguzki, hondartza, mendi, opor, bero, festa, igerileku.

	4						3	6
9					3			7
		5		2	7	9		8
5		9	3	7			1	
		7	8					
8	3						5	
		3		9				
					2	6	8	
2	7		4	6				

EUSKARA IRUNEN BARRENA

Aurrak korruan jostatzeko kantak

Txirristi
mirrixti
pekado,
erriya
Prantziyan
balego,
eperrak kaxa,
iriya dantzan.
astuak donboliña jo.

Alan alan kikirriñera(1)
alan alan xanburrunera
Maria Plaza barriko
jira bestaldera.

(1) Gorespena adierazten du.
(2) Gauza zarpaila adierazten du.

S.R.A. andereari jasoa (Irun, 1959-VII-21). (El Bidasoa, 1959-IX-5)

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga
Euskaraz, Irunen barrena

TOKI ALAI 3. ZIKLOA

ZENTZUMENEN BASOA

20/21 ikasturte berezi honetan irakasleek proiektu berri bat proposatu digute: Zentzumenen Basoa osatzea.
Gure ikastetxearen inguruan basotxo bat dugu. Orain arte, ezin izan gara basora sartu: zikina zegoen, prestatu gabe...Baina, aurten leku falta dela eta basoa atontzea pentsatu genuen.
Hasiera batean jolasgarairako eremu bihurtzea zen helburua. Baina, konturatu gara basoa bera aiboor bat dela eta ikastetxe gutxik daukatela baso bat haien eremuan.
Horregatik, basoari duen garrantzia eman nahi diogu eta aprobetxatuz gure ikastetxea STEAM proiektuan sartu dela, basoa bihurtu dugu ikasturte honetako proiektu nagusia.
Irakasle guztien laguntzaz, bosgarren eta seigarren mailako ikasleok basoan hainbat gauza egingo ditugu:

1. Bertako zuhaitzak sailkatu eta azalpen txarteltxoak jarriko ditugu.
2. Basoa bisitatzeko ibilbide bat prestatu eta seinaleak jarriko ditugu.
3. Lehen eta bigarren zikloko ikasleentzat bisita gidatuak egingo ditugu.
4. Basoan zentzumenak lantzeko txokoak egingo ditugu.
5. Web orri bat sortuko dugu gure basoa denok ezagutzeko aukera izan dezazuen.

Oso proiektu polita da eta ilusio handiz ekin diogu. Kontatuko dizuegu zer moduz goazen!

Uztaila proposamenez beterik dator udako opor berezi hauen hasieran

Hiriko gazteentzat uztaila proposamenez beterik dator udako oporren hasieran. Irungo Udalak, Gaztelekua eta Konekta zerbitzuaren bitartez, gustu guztietarako ekintzak proposatu dizkie Irungo gazteei. Uztaileko proposamenaz gainera, udako hilabeteetan zehar Azken Portu eta Artaleku kiroldegiek abonamendu berezi bat eskainiko diete gazteei.

Uztailaren 2tik 29ra, era guztietako hogei proposamen antolatu dira, 12 eta 25 urte bitarteko gazteentzat. Jarduerak antolatzerako orduan parte-hartzaileen adina eta ekintza mota kontuan hartu dira. Ekintza gehienak doakoak dira, eta beste batzuk, aldiz, prezio zehatza dute, beste barruti edo instalazio batzuetara sartu behar baita. Pandemia dela eta ezarritako neurrietara egokitu da programa. Santi Jiménez Gazteriako ordezkariak azaldu duenez, "pandemia testuingurua dela eta, beharrezko neurriak hartu beharko dira, baina Irungo inguru pribilegiatuaz gozatzeko uda ahalik eta ondoen aprobetxatzeko programa bat eskaini nahi dugu. Informazio gaurkotu guztia udalaren webgunean kontsulta daiteke.

Konekta zerbitzua
Konekta zerbitzuak antolatuko ditu uztailean ekintzetako batzuk. Konekta zerbitzua 2018ko urrian sortu zen, Irungo Udaleko Gazteria arloa identifikatzen duen Gazteartean zigiluaren eta herritar gazteen artean konexio-esparru bat sortzeko. Horrez gain, gazte irundarren proposamenak entzuteko eta haiei forma emateko sortu zen zerbitzua eta aurtengo udako programazioak hala erakusten du.

Konekta zerbitzuak antolatutako lehen bi jarduerak 16 eta 25 urte arteko gazteentzat pentsatuta daude. Lehen ekintza kayak eta snorkel irteera izango da, uztailaren 10ean egingo da eta 10,90 euroko prezioa izango du. Uztailaren 16an, berriz, maitasun-harremanei buruzko "scape room" bat antolatuko dute eta, kasu horretan, jarduera doakoa izango da. Uztailaren 24an 18 eta 25 urte arteko gazteek Kanoraft eta Bertiz abentura parkeko irteeran parte hartzeko aukera izango dute, 21,75 euroren truke. Azken irteera uztailaren 30ean egingo da Sallent de Gallegoko Multiabentura parkera. 15 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzendutako jarduera izango da eta 21,75 euroko prezioa izango du. Interesdunek Konekta zerbitzuak proposatutako ekintzei buruzko informazio gehiago konekta@irun.org posta elektronikora idatziz edo 656 794 372 telefono-zenbakira deituz aurkituko dute.

Gaztelekua
Gaztelekuan, berriz, 17 urtetik beherako gazteentzako ekintzak prestatu dituzte. Interesdunek ekintzetan izena eman edo informazio gehiago kontsultatu dezaten 943 63 68 26 eta 690 706 471 telefono-zenbakiak erabili ahalko dituzte. Bestetik, gaztelekua@irun.org helbide elektronikora idatzi edo Gaztelekuko (@gazteleku_irun) Instagrama kontsultatzeko aukera izango dute. Jarduera batzuk oraindik baieztatzeke badaude ere, honako ekimen hauek antolatu dira: ginkana, hama beads 3D tailerra, Among us zuzenean eta izozkien tailerra, Irungo igerilekuetara irteera, Endarlatsara irtenaldia bizikletan, piragua eta snorkela, argazki rallya, stand up paddela eta surfa Donostian, skate taulak birziklatzeko tailerra, txangoa Amuitzera (Hondarribiko "fraideen hondartzara), tie dye kamisetak, barbakoa Erlaitzen, Oilakinetako putzuak, Txindokiko itzala eta gaua Beizamako aterpetxean, udako jolasak, txangoa Santa Klara irlara, Hernaniko igerilekuak eta agur ekitaldia.

Uztailean zehar antolatuko diren ekintzen gaineko informazio zehatza Gaztelekuaren webgunean kontsultatu daiteke. Ekintza bakoitzaren prezioa, bilgunea eta ordua desberdina izango da.

Udaleku eta Abentura programak
Era berean, jakinarazten da oraindik Udaleku eta Abentura programarako plaza batzuk libre daudela. Aurten, pandemia dela eta, ekintzaren basea Irunen egon bada ere, inguruko lekuetan irteerak eta jarduerak egingo dira. Zehazki, txanda hauetan plaza libreak daude: uztailaren 17tik 23rako 8 eta 10 urte arteko haurren txandan eta uztailaren 29tik abuztuaren 4ra 14 eta 16 urte arteko gazteen txandan. Bi txanda horiek euskaraz egingo dira.

Kasu honetan, esleipena automatikoki egingo da, eskariaren hurrenkeraren arabera, eta betekizun bakarrak eskatutako txandako adina eta hizkuntza izango dira. Interesa izanez gero, jarri harremanetan Gazteria Zerbitzuarekin, zuzenean 943 50 54 04 telefonoan, 09:00etatik 14:00etara, edo gazteria@irun.org helbide elektronikoaren bidez.

Kiroldegiak
Ekainaren 21etik uztailaren 31ra bitartean Artaleku eta Azken Portu kiroldegietan abonatuentzako udako ohiko kanpaina jarriko da abian. Egitasmoa 12 urtetik 22 urtera bitarteko gazteei zuzenduta dago eta uztailetik irailera bitarteko hiruhileko osorako alta doan hartu ahalko dute. Beraz, kanpainak 43,12 eta 77,58 euro bitartean aurrezteko aukera eskainiko die. Horretarako, eskatutako adin tarteren barruan egotea eta familian abonatu gehiagorik duten kontuan izango da.

Udan instalazioak erabiltzeko aukera izango da: igerilekuak, fitness aretoak (15 urtetik gorakoek, ordutegi jakin batzuetan), squash kantxak, pilotalekuak eta trinketa. Era berean, ikastaroak egiteko prezio murriztuak izango dituzte. Hiru hilabeteetarako abonamendua erabiltzeko epea uztailaren 2tik irailaren 30era bitartekoa izango da. Gero, uda ondoren, abonatu gisa jarraitu ahalko dute, prezio eta erabilera baldintza beretan.

Interesdunek udal webgunearen bidez eman behar dute izena, Irun Txartela erabiliz, eta informazio gehiagorako kiroldegiekin harremanetan jar daitezke, Artalekura edo Azken Portura zuzenean deituta (943 50 57 57 eta 943 50 57 80, hurrenez hurren).

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

Ez nauzu maite...

nire pasahitzak eskatzen dizkidazulako.

irten aurretik, arropaz aldatzera behartzen nauzulako.

nire lagunak ez dituzaulako inoiz gogoko
sakelakoa zelatatzen didazulako.

nire estiloagatik barregarri uzten nauzulako.

lagunekin geratu nahi badut, haserretu egiten zarelako.

nire likeak direla-eta haserretzen zarelako.

#MaitatzeaEzDaKontrolatzea

Genero Indarkeriaren kontra sentsibilizatzeko kanpaina

Global Training bekak

Nazioartekotzeko mugikortasun programa

Global Training 2021 beka programaren helburua da Euskadiko gazteen nazioarteko prestakuntza eta mugikortasuna ahalbidetzea, eta, horretarako, gazteek euren profil akademikoari lotutako jarduerak eta proiektuak egiten dituzte esperientzia profesionala eskuratzeko atzerrian.

Programa honek hasierako prestakuntza eskaintzen du, bai eta 6-12 hilabete arteko praktikaldi bat atzerriko enpresa eta antolakundeetan, bekadunek esperientzia profesionala eskura dezaten nazioarteko inguruneetan.

Epea: Uztailak 16.

Taldea: Komunikazioak duen indarra

Gizaldek, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Hezkide Eskolak sustaturiko proiektua da. Bere egitekoa, gizarte zuzen eta solidarioago baten aldeko hiritar konprometitu eta ekintzaileak izateko, ekintza boluntarioa suspertu eta indartzea da.

Boluntariotzak denboran jarraikortasuna izateko bokazioa du eta boluntariotza legeak une batean edo epe motzean egindako borondatezko ekintzak ez ditu boluntariotzatzat hartzen. Hala ere, batzuetan irabazi asmorik gabeko entitateek, hainbat kanpaina edo epe motzeko ekintzak burutzeko, epe baterako laguntza osagarria behar izaten dute.

Elkarteak uda honetarako eskaintzen dituen boluntariotza-aukera guztiak webgunean kontsultatu daitezke:

www.gizalde.eus

Udako Lehen Sorospen ikastaroak

Lehen Sorospen ikastaroa. Asteburuak
- Egunak: uztailaren 3tik 18ra (astelehenetik ostiralera)
- Ordutegia: 09:00 - 14:00

Lehen Sorospen ikastaroa
- Egunak: uztailaren 5etik 16ra (astelehenetik ostiralera)
- Ordutegia: 10:00 - 13:00

Lehen Sorospen ikastaroa
- Egunak: uztailaren 19tik 30era (stelehenetik ostiralera)
- Ordutegia : 10:00 - 13:00

Oinarrizko Bihotz-Biriken Suspertzea eta Kanpoko Desfibrilagailu Erdi-Automatiko ikastaroa
- Egunak: uztailaren 1etik 31ra
- Modalitatea: erdipresentziala

Lehen Sorospen ikastaroa Erdipresentziala
- Egunak: uztailaren 1etik 31ra

Lekua: DYA (Baratzategi k. - Intxaurrondo auzoa - Donostia)

I**zen emateak eta informazio gehiago:** deitu 943 46 46 22ra edo sartu www.DYAgipuzkoa.com webgunean.

DYA GIPUZKOA

EITBko lan-poltsa

EITBk Euskal Telebista eta Eusko Irratirako lan-poltsak ireki ditu.

- Kiroletako erredaktore-lokutorea

- Aktualitateko erredaktore-lokutorea

- Albistegietako erredaktorea

- Etab.

Epea: Uztailak 7.

Uztailak

3

Irteera

Zer: Lapurriturri informazio guneak narrasti eta anfibioen mundua ezagutzeko irteera antolatu du.

Bilgunea: Lapurriturri informazio puntua.

Ordua: Zehazteko.

Izen-ematea: 010 / 943 505152 telefono-zenbakian.

Eraman beharrekoak: Maskara, mendiko eta uretako arropa eta oinetakoak.

3 eta 4

"1522ko Bideetatik" programa

Zer: Programak ibilbide gidatu desberdinak eskaintzen ditu Irun hirian barrena. Kasu honetan, Santiago eta Behobiako zubia lotuko ditu ibilaldiak.

Ordua: 11:00etan.

Prezioa: 5 euro.

Izen-ematea: Erreserbak telefono edo WhatsApp bidez egin daitezke (635 70 87 46) edo bidatour@gmail.com helbidera idatziz.

Distantzia: 3km.

4

Musika

Zer: EUOren (Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestra) kontzertua.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

8tik 10era

Dies Oiassonis

Zer: Antzerki klasikoa, irakurraldi dramatizatuak eta pintxoaren bidea.

Non: Junkal plazatxoan eta Oiasso museoan.

– Uztailak 9, 20:00etan: Bakarrizketak, "Mujeres de Oiasso"

– Uztailak 10, 22:00etan: Antzerkia, "La Comedia de la Cestita". Sarrera orokorra 12,00€ eta sarrera murriztua 8,00€.

– Uztailak 11, 13:00etan: Idazle klasikoen irakurraldi dramatikoa.

- Hortaz gain, pintxoaren ibilbidea, stock-azoka eta bestelako ekintzak egingo dira.

15

Antzerkia

Zer: "Aqui va a pasar algo" Zanguango antzerki konpainiaren eskutik.

Non: Junkal plazatxoan.

Ordua: 20:00etan.

Edukiera: Mugatuta.

16

Musika

Zer: Iñaki Dieguez hirukotearen emanaldia.

Non: Junkal plazatxoan.

Ordua: 20:00etan.

Sarrera: Mugatuta.

Denbora-pasen emaitzak

L	D	P	F	B	A	P	M	Q	C	Q	C	B	Z
U	F	T	L	U	J	B	R	Y	V	J	W	X	E
L	E	U	D	X	T	X	Q	Q	B	T	H	D	B
U	S	F	V	D	H	D	P	V	H	Y	H	A	E
M	T	C	T	E	B	K	Z	C	I	R	O	Y	R
D	A	A	O	B	G	I	P	H	H	F	G	Z	O
X	N	Y	U	X	G	U	W	M	E	N	D	I	R
Y	U	Y	H	G	D	Q	Z	H	U	Q	G	Q	S
Y	D	F	F	G	V	K	T	K	X	L	B	W	S
L	E	T	D	Z	C	S	W	Y	I	E	M	T	A
Q	F	A	U	I	G	E	R	I	L	E	K	U	H
C	I	L	N	D	Z	O	P	O	R	P	B	A	S
E	M	Z	I	L	J	Q	A	A	I	L	S	C	G
D	O	T	Q	N	H	O	N	D	A	R	T	Z	A

7	4	2	9	8	1	5	3	6
9	8	6	5	4	3	1	2	7
3	1	5	6	2	7	9	4	8
5	6	9	3	7	4	8	1	2
1	2	7	8	5	9	4	6	3
8	3	4	2	1	6	7	5	9
6	5	3	1	9	8	2	7	4
4	9	1	7	3	2	6	8	5
2	7	8	4	6	5	3	9	1

Estudio Goverretik sektore profesionalera zuzendutako argazkilaritza digitaleko marka berria aurkezten dugu.

Katalogo, webgune, sare sozial eta "take away" zerbitzua eskaintzen duten enpresentzako argazkiak egiten ditugu.

ZURE ENPRESAREN IRUDIAK GARRANTZI HANDIA DU.

Bisitatu gure webgunea!
www.fdefoto.es

360°

-GASTRONOMIKOA
-PRODUKTUAK
-KATALOGOAK
-PUBLIZITARIOA
-EKITALDIAK
-INMOBILIARIAK
-KORPORATIBOA
-2D 360º-NOBEDADEA!

fdefōto

LETXUNBORRO HIRIB. 100 , 2ºA
20305 IRUN - GIPUZKOA -
hola@fdefoto.es
fdetofo.es
943 840 113 - 647 930 484